



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERAKUNDE ADIERAZPENA, ERREGE ATEAN IZANDAKO LAN- ISTRIPUAN GERTATUTAKO HERIOTZA DELA ETA

1.- Gasteizko Udalak atsekabea adierazi du aho batez, 2020ko otsailaren 20an Errege ateko obra batean gertatutako lan-istripuan izandako heriotzazatik. Doluminak helarazi nahi dizkie hildako langilearen familiari, lagunei eta lankideei. Era berean, lan-istripuen salaketa publikoa egiten du, eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Osalanek heriotzaren inguruabarrak argitu ditzatela eskatzen du, familia eta senitartekoei informazioa eman ahal izateko.

2.- Gasteizko Udalak agerian utzi nahi du lan-prekaritateari aurre egiten jarraitu beharra, lan istripuak ekidin egin behar direla, gauza guztien gainera eta kosta ahala kosta, lan-segurtasunak lehentasuneko izan behar baitu edozein lanetan. Ezinbestekoa da laneko osasunari eta laneko segurtasunari buruzko kanpainak bultzatzen jarraitzea, baita laneko arriskuen prebentziorako arauak bete daitezen eskatzea ere, bereziki lan-

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL ACCIDENTE LABORAL OCURRIDO EN LA CALLE PORTAL DEL REY, EN EL QUE FALLECIÓ UN TRABAJADOR

1. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz manifiesta, por unanimidad, su pesar por la muerte de una persona en un accidente laboral el día en una obra en construcción en la calle Portal del Rey, el pasado día 20 de febrero 2020. Desea hacer llegar sus condolencias a la familia del trabajador fallecido, a sus amistades y compañeras de trabajo. Asimismo, hace pública su denuncia ante los accidentes laborales y solicita que se aclaren las circunstancias del fallecimiento por parte del Departamento Vasco de Seguridad y Osalan, de cara a poder informar a familiares y allegados.

2. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz quiere poner de manifiesto que hay que seguir combatiendo la precariedad laboral, evitar los accidentes laborales cueste lo que cueste y por encima de todo, ya que la seguridad laboral ha de ser una prioridad en cualquier tipo de trabajo. Es indispensable seguir impulsando campañas sobre salud laboral y seguridad en el trabajo, así como la exigencia del cumplimiento de las normas de prevención de riesgos



prekaritate argiko egoeretan.

3.- Horregatik guztiagatik, erakunde guztiei berriz ere eskatzen die lan-arriskuen prebentziorako jardunbide egokiei buruzko proiektuak gauzatzeko laguntzen jarraitzeko –lan-administrazio, sindikatu eta patronal-erakundeekin koordinatuta–, laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituen kontra aritzeko, eta ikuskapen-zereginak areagotu eta hobetzeko.

4.- Halaber, Gasteizko Udalak bat egiten du heriotza hau salatzea eta hildakoaren familiari babesa eta elkartasuna adieraztea xede duten ekimenekin, eta horietan parte hartzera dei egiten die herritar guztiei.

laborales sobre todo en situaciones de clara precariedad laboral.

3. Por todo ello, insta a todas las instituciones nuevamente a continuar colaborando en la realización de proyectos sobre buenas prácticas de prevención de riesgos laborales en coordinación con la Administración laboral y las organizaciones sindicales y patronales, así como a la persecución de los delitos contra la seguridad y salud en el trabajo y el incremento y mejora de las funciones inspectoras.

4. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, igualmente, se adhiere a las iniciativas cuyo objetivo sea denunciar este accidente mortal y mostrar su solidaridad y apoyo a la familia del fallecido, y anima a la ciudadanía gasteiztarra a participar en ellas.